

## OLAZTI

### **Deialdia, administrari-ofizialaren lanpostu bat barne igoera murriztuan betetzeko, oposizio-lehiaketa bidez**

Ikusi da Alkatetzaren 357 ebazpena, 2024ko abenduaren 13koa, 2024. urterako lan publikoaren eskaintza onesten zuena eta 2024ko 261. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 26koan, argitaratutakoa.

Ikusi da hartan administrari-ofizialaren lanpostua eskaintzen zela, funtzionario-araubidean, plantilla organikoko 10.4 zenbakiarekin, C mailaren barruan, euskararen C1 eskakizunarekin, eta barne igoera murriztuan betetzeko sistemarekin (251/1993 LFDaren 15.3 artikulua), eta betetzeko data 2025-2026 duena.

Kontuan hartuta lanpostu horren deialdia arautzeko garatutako oinarriak eta indarreko legeriak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen –TAOAL– 21.1.g) eta 102.1 artikulua betez ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, Nafarroako administrazio lokalari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 8.2 artikulua igorrita.

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehena.–Onestea espedientean jasota dauden oinarriak eta honako lanpostu hau hautatzeko eta ondotik izendatzeko deialdia arautu behar dutenak: administrari-ofizialaren lanpostua, funtzionario-araubidean, plantilla organikoko 10.4 zenbakiarekin, C mailaren barruan, euskararen C1 eskakizunarekin, eta barne igoera murriztuan betetzeko sistemarekin, eta betetzeko data 2025-2026 duena.

Bigarrena.–Interesdunek Hamargarren oinarrian jasota dauden errekurtsoak aurkezten ahalko dituzte oinarrien kontra.

Hirugarrena.–Deialdi hau eta haren oinarriak argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean haien publikitatea egiteko eta eskaera aurkezteko epea zenbatzen hasteko.

Laugarrena.–Ebazpen honen berri ematea Olaztiko Udaleko langileen ordezkari, eta adieraztea organo honi jakinarazi beharko dizkiotela beren irizpideei jarraikiz izendatzen duten/dituzten pertsona/k gehienez hilabeteko epean, egintza hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, oinarri hartuta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 82.5 j) artikulua.

Bosgarrena.–hautaketa-epaimahaiko kide izendatutako pertsonen jakinaraztea onetsitako oinarriekin batera eta Osoko Bilkurari haren berri ematean kide anitzeko organo honek egiten duen hurrengo ohiko bileran.

### **DEIALDIA, BETE DADIN ADMINISTRARI-OFIZIALAREN LANPOSTU BAT, C MAILAKOA, BARNE-IGOERA MURRIZTUAN ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ**

#### **1.–Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da betetzea administrari-ofizialaren lanpostu bat, C mailakoa, barne-igoera murriztuan eta oposizio-lehiaketa bidez, jarraikiz Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 15.6 artikuluan ezarritako prozedurari.

1.2. 2024rako onetsitako udal plantilla organikoa 2024ko apirilaren 16ko Osoko Bilkuraren bidez behin betiko onetsi zen (2024ko 149. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 22koa); bertan ezarri zen barne igoerako hautapen prozedura bat plantilla organikoaren administrari laguntzailearen 10.4 lanpostua C mailako administrari-ofizial bihurtzeko administrari-ofizialek dituzten ordainsari osagarriekin. Hori egiteko, dagozkion hautapen deialdia eginen da, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.6 artikuluari jarraikiz. Maila horretan sartzeko arrazoia da dagokien lanean egin behar izatea goragoko

mailari dagozkion zereginak. Prozesu honen bukaera lanpostua betetzen baldin bada, automatikoki amortizatuko da administrari laguntzailearen 10.4 lanpostua.

1.3. Hautaprobak gainditu ondotik aipatu lanpostuan aritzeko izendatzen den izangaia C mailan/taldean sartuko da eta plantilla organikoan maila edo talde horretarako ezarritako ordainsariak jasoko ditu, oraingoan ordezkari, hots, 2024ko plantilla organikoan ezarritakoak, %28ko lanpostuko osagarria eta %12ko mailako osagarria.

1.4. Prozedura gainditzeko duen izangaiak lortuko du barne-igoera.

1.5. Mailaz igo denak jatorrizko zerbitzuari edo arloari atxikirik segituko du; deialdiko maila eta kategoriari, eta eskatutako ikasketei egokitutako eginkizun eta lanetan ariko da eta, maila berriari dagozkion eginkizunak gain, ordura arte egiten zituenak ere beteko ditu.

1.6. Mailaz igotze honetan parte hartzeak ekarriko du lanaldi osoko funtzionarioen araubide juridikoan sartzea eta araubide horri dagozkion eskubideak aplikatzea.

## *2.–Izangaiek bete beharreko baldintzak.*

Prozedura honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Olaztiko Udalaren zerbitzuko funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa eta D maila edo taldekoa izatea.

b) Olaztiko Udalean administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko izendaturiko funtzionarioa edo lan kontrataduna izatea.

c) Abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea, salbu eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona zerbitzuak egiten ari baldin bada administrazio honetako beste lanpostu finko edo aldi baterako batean.

d) Bost urteko antzintasun aitortua frogatzea Nafarroako Administrazio Publikoetan.

e) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean edukitzea Batxilergo titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina. Titulazioaren baldintzaren ordezkari, kasu honetan (C maila), aukeran egonen da administrazio publikoaren zerbitzuan zortzi urteko antzintasun aitortua izatea frogatzea, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

## *3.–Eskabideak.*

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, oinarri hauek argitaratu eta hila beteko epean, udal egoitza elektronikoaren bitartez: <https://sedeelectronica.olazti.es/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=6594>.

Parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira epaimahaiak baloratu beharreko merezimendu guztiak.

Eskabideak izanen dira II. eranskineko ereduaren araberrakoa.

3.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

## *4.–Izangaien onarpena eta erreklamazioak.*

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, alkatetzak ebazpen bat emanen du, onesteko izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, eta aginduko du argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian.

4.2. Izangai baztertuek 10 egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatu eta aurkeztutakoak ebatzita, alkatetzak ebazpen bat emanen du, onesteko izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta aginduko du argitara dadila Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian. Ebazpen horretan bertan zehaztuko da probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

Izangai bazterturi ez bada, zerrenda hori zuzenean onesten ahalko da behin betiko zerrenda gisa.

### *5.–Kalifikazio-epaimahaia.*

5.1. Hauek izanen dira kalifikazio-epaimahaiko kideak:

–Epaimahaiburua: Joseba Vizuete Askargorta jauna, Olaztiko Udaleko alkatea.

–Ordezkoa: Jose Manuel Armendariz Catalán jauna, Olaztiko Udaleko lehen alkateordea.

–Epaimahaikidea: Maialen López Cambra, Altsasuko Udaleko funtzionarioa.

–Ordezkoa: izendatzeke.

–Epaimahaikidea: María Pilar Aguirre Jaureguialzo, Sakanako Zerbitzu Mankomunitateko funtzionarioa.

–Ordezkoa: Eva Perez Eguino, Sakanako Zerbitzu Mankomunitateko funtzionarioa.

–Epaimahaikidea: Olaztiko Udaleko langileen ordezkariak izendatzeke.

–Ordezkoa: Olaztiko Udaleko langileen ordezkariak izendatzeke.

–Epaimahaikide idazkaria: Silvia Gonzalo Etxarri, Nafarroako Gobernuko foru gaitua.

–Ordezkoa: izendatzeke.

5.2. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari horren berri eman, baldin badaude abstenitzeko egoera batean, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua arabera (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea).

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean (aipatutako urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua).

5.3. Hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da epaimahaia.

5.4. Epaimahaiak ez du eratzerik izanen, ez eta aritzerik ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.

5.5. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren auzi guztiak.

5.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izaten ahal du, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

### *6.–Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak.*

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan egingen da, oposizioaldia lehenbizi eta lehiaketaldia gero, oinarri hauetan zehazten den gisara.

6.2. Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzean adieraziko da non, noiz eta zein egunetan hasiko den oposizio-lehiaketa.

Gero epaimahaiak, behar den garaian, hurrenez hurren eta 9. oinarrian iragarriko ditu gainerako probak.

### 6.3. Oposizioaldia.

6.3.1. Ariketa bakarra, teoriko-praktikoa: idatziz erantzun beharko zaie 35 galderari. Horiek izanen dira I. eranskineko gai-zerrendako gaiei buruzkoak. Zenbait erantzun emanen dira aukeran galdera bakoitzean, baina bakarra izanen da zuzena. Ariketa egiteko gehieneko denbora izanen da epaimahaiak ezartzen duena.

Erantzun zuzen bakoitzeko 2 puntu emanen dira. Galderaren bat baliogabetzen bada aurkaratu ondotik, erreserbako galderak erabiliko dira.

6.3.2. Epaimahaiak iragarki-taulan eta, kasua bada, web-orrian emanen du argitara lehen ariketaren emaitza, eta hiru egun naturaleko epe bat irekiko da alegazioak egiteko. Hura bukatutakoan, eta alegazioak ebatzita (baldin aurkeztu badira), behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

6.3.3. Oposizioaldiko ariketari gehienez ere 70 puntu emanen zaizkio.

6.3.4. Oposizioa ariketa baztertzaila izanen da. Bazterturik geldituko dira ariketan gehieneko puntuazioaren erdia gutxienez lortzen ez duten izangaia.

6.3.5. Hautaketa-prozesua bukatuta, epaimahaiak argitara emanen ditu izangaien zerrenda eta bakoitzak lortutako kalifikazioa, ariketa egin den tokian, eta Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian.

6.3.6. Deialdi bakarra eginen da probetarako, eta haietara izangaiek agertu beharko dute nortasun agiri nazionala edo horren legezko baliokidea aldean daramatela. Agertzen ez diren izangaia bazterturik geldituko dira.

### 6.4. Lehiaketaldia.

6.4.1. Epaimahaiak baloratuko ditu izangaiek alegatutako merezimenduak, behar bezala frogatuak, ondoko baremoaren arabera. Epaimahaiak noiznahi eska ditzake izangaiek alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

6.4.2. Merezimenduen baremoa:

Nafarroako administrazio publikoetan, administrari laguntzailearen, administrari-ofizialaren edo antzeko lanpostuetan egindako urte bakoitzeko, 2 puntu. Gehienez ere, 30 puntu.

Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen da. Era berean, lanaldi partzialetan egindako zerbitzuen kasuan, emanen da proportzioan dagokion puntuazioa.

Lehiaketaldiko puntuazioa 30 puntukoa izanen da gehienez.

6.4.3. Lehiaketaldia buruturik, izangai bakoitzaren puntuazioa Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian paratuko da jendaurrean.

## 7.–Gaingintzen duten izangaien zerrenda.

7.1. Ariketaren kalifikazioa burututa, epaimahaiak jendaurrean paratuko du, ariketa egin den tokian, eta Olaztiko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian gaingintu dutenen zerrenda, lortu duten puntuazioaren arabera ordenatuta.

7.2. Epaimahaiak deialdia egin duen organoari aurkeztuko dio gaingintu duen izangaia puntuazio-ordenaren arabera izendatzeko proposamena. Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

## 8.–Izendapena eta jabetza hartzea.

8.1. Aurreko oinarrian aipatutako hautaketa-prozedura bukatutakoan, alkateak, izendapen proposamenarekin bat, ebazpen bidez izendatuko du prozedura puntuazio onenarekin gaingintu eta deialdiko lanpostuan sartzeko den izangaia, eta horiek izanen duten maila berria zehaztuko du. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendatutako izangaiak hilabeteko epean jabetu beharko du lanpostuaz, izendapena jakinarazten zaionetik hasita. Norbait lanpostuaz jabetzen ez bada, ezinbesteko kasuetan izan ezik, maila berria eskuratzeko eskubide guztiak galduko ditu.

### 9.—Jarduketaren publikotasuna.

Deusetan galarazi gabe Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez modu ofizialean argitaratu beharreko izapideak, proben deialdiei eta kalifikazioei buruz epaimahaiak ematen dituen ebazpenen eta haren jarduketaren gaineko informazioa, bai eta interesdunentzat jakingarri den informazio guztia ere, argitara emanen da Olaztiko Udalaren web-orrian ([www.olazti.com](http://www.olazti.com)) eta erakunde horren iragarki-taulan.

### 10.—Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdiaren oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtsio hauetako bat aurkezten ahalko da, hautara:

A) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsioaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

C) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsioaren xedeko egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsioaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Olaztin, 2025eko martxoaren 14an.—Alkatea, Joseba Vizuite Askargorta.

## I. ERANSKINA.—GAI-ZERRENDAA

1. gaia.—6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa: Atariko titulua. I. titulua, I. kapitulua (1., 2., 3. eta 4. atalak). IV. titulua, I. kapitulua (1. atala). V. titulua, I. kapitulua; IX. titulua, I. kapitulua (1. eta 2. atalak).

2. gaia.—7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: II. titulua, II. eta III. kapituluak.

3. gaia.—39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, hizpide duena administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea: I. titulua; I. eta II. kapituluak. II. titulua; I. eta II. kapituluak. III. titulua, II. kapitulua. IV. titulua, II. kapitulua (3. atala), IV. kapitulua (4. atala), V. kapitulua eta VII. kapitulua. V. titulua, II. kapitulua.

4. gaia.—40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa: Atariko titulua, II. kapitulua (3. atala, 1. azpiatala, eta 4. atala), V. kapitulua.

5. gaia.—2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa: I. titulua, I. kapitulua (1. atala), II. kapitulua (1. eta 2. atalak), III. kapitulua (1. eta 2. atala, 1., 2., 4. azpiatalak), IV. kapitulua (7. atala; 1., 3. eta 4. azpiatalak). II. titulua.

6. gaia.—1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, onesten duena Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina: V. titulua, I. kapitulua.

7. gaia.—2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa: I. titulua, 27. artikulua, III. kapitulua (1. eta 2. atalak).

8. gaia.–251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategia: I. titulua; II. titulua; VIII. kapitula. IV. titulua.

9. gaia.–17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa: I. titulua. Xedapen orokorrak.

10. gaia.–17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituenak. I. titulua, V. kapitula.

Oharra: Gai guztiak eskatuko dira deialdi hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean indarra duen legediaren arabera.

## II. ERANSKINA.–ESKABIDE EREDUA

[https://administracionelectronica.navarra.es/AccesoFicheros/default.aspx?CodigoCompleto=Portal@@@epub/BON/IMPRESOSG/005C\\_Local\\_concurso\\_oposic\\_E.pdf](https://administracionelectronica.navarra.es/AccesoFicheros/default.aspx?CodigoCompleto=Portal@@@epub/BON/IMPRESOSG/005C_Local_concurso_oposic_E.pdf)

L2504214